

bid egileak



**Yon Oñatibia (1911-1979)**

Egilea:

**ANTTON KAZABON**

## Familia

*Y*on Oñatibia Audela Oiartzunen jaio zen 1911. urteko azaroaren 24an. Oiartzungo kale-kalean jaio zen, San Esteban plazan, hain zuzen, nahiz eta hiru bat urtetatik Kale Nagusiko 20. zenbakian bizi izan. Gurasoak, Bernardo eta Maria. Aita Bernardo urretxuarra, Oiartzunen sendagile. Ama Maria, berriz, oiartzuarra, Ergoiengo *Gaztañegi* baserrikoa.

Hamar senide izan ziren, zazpi anaia eta hiru ahizpa. Denetan zaharrena Yon. Anaiak Yon, Joxe, Dionisio, Manu, Inazio, Pablo eta Jesus Mari. Ahizpak, berriz, Maria Luisa, Teresa eta Mertxe.

Gurasoak euskaldunak ziren, baina aita Bernardok bazuen gaztelaniarekin

kezka. Gero ikasketak egiteko adina jakingo ez ote zuten edo. Horregatik tarteka aitak gaztelaniaz hitz egiten omen zien seme-alabei, hauek bigarren hizkuntza ere mendera zezaten.

Lehen ikasketak herriko eskolan egin zituen Yonek, beste senideek bezalaxe. Gero batxilerra egitera kanpora atera behar izan zuten.



Yon Oñatibia Audela (1911-1979)



Yon, ttikitako argazki batean



Bost anaia zaharrenak



*Gaztañegi* baserria. Yonen amaren jaiotetxea. Oiartzungo Ergoien auzoan. Argazkian, ate ondoan, Yonen amona Manuela



Oiartzunen "Misio Egunean". Yon Aita Santuz jantzita



## Lehen urratsak musikan

Musika eta euskara izan ziren dantzarekin batera, Yonen bizitzako zutabe nagusiak. Ttikitandik maite zituen txistua eta dantza. Euskal kulturaren pizkundera ere gazte-gazte-tandik ezagutu zuen, eta horrek ere izango zuen Yonengan bere eragina.

Bederatzi urterekin Don Paulo Irigoien, herriko apaizarekin hasi zen solfeoa ikasten. Lehen notak kantari Don Paulok jarri zuen Yon ttikia, garai hartan beste oiartzuar asko eta askoren antzera. Lehen pausoak bakarlari

edo solista gisan eman zituen. Oso ahots polita omen zuen. Yonek beti izan zituen esker oneko hitzak Don Paulo apaizarentzat, txikitandik musikaren bidea erakutsi ziolako.

Oiartzunen batxilerra ikasteko aukerarik ez, ordea, eta Yonek, bere senideek egin zuten bezala, herritik kanpora joan behar ikasketak egitera. Senide batzuek Tolosan egin zituzten ikasketak, baina Yonek Bergaran egin zuen batxilerra. Bergaran musikako ikasketekin aurrera jarraitu zuen, eta pianoa ikasten hasi zen Pablo Barrena organista sekularrarekin.



Hamar senideak gurasoekin



Yon, Joxe eta Manu anaiak txistulari, ikasle garaian



Don Paulo Irigoien apaizaren omenez,  
Yonek idatzirik Rapsodia



Oiartzungo Parrokiko Abesbatza, Don Paulo Irigoien zuzendaria erdian dutela.  
Bere gainaldean Don Manuel Lekuona, eta ezkerreko 2.a Don Martin Lekuona



## Zaragozako unibertsitatean

1928an, Valladolidera jo zuen zuzenbide ikasketak egitera. Han bi urte egin ondoren, Zaragozan jarraitu zituen ikasketak. Lege gizon izateko ikasketak Zaragozako Unibertsitatean amaitu zituen, beraz.

Aldi hartan lau anaia elkartu ziren Zaragozan beren ikasketak egiten: Yon, Joxe, Dionisio eta Manu. Joxek albaitaritza ikasi zuen, Dionisiok medikuntza, eta Manuk ere albaiteritza.

Beste senide gehienek ere goi mailako ikasketak egin zituzten: Inazio eta Pablo apaiz egin ziren, eta Jesus Marik, gazteenak, ere albaite-



Yon, Joxe, Dionisio eta Manu anaiak, Zaragozan ikasle, apopilo zeuden etxekeekin



Yon Oñatibia, Zaragozako ikasle garaian ezagutu zuen Estornes familiarekin



*Eun dukat* antzerki taldekoak. Goikoak, ezkerretik hasita:  
Jose Martin Gaztelumendi, Jose Maria Aristizabal, Sebero Iñarra, Jose Manuel Zapiain, Andres Etxeberria, Dionisio Martiarena,  
Justiniano Zapiain, Pedro Mari Mitxelena, Lukas Iragorri eta Jose Luis Etxebeste.  
Behekoak: Antonio Lekuona, Jose Luis Sagarzazu, Balentin Santa Kruz, Jose Duniz, Jose Manuel Baraibar, Feliziano Sarasti,  
Inazio Zalakain, Yon Oñatibia eta Jose Maria Erauskin



ritza ikasi zuen Zaragozan. Arrebei dagokie-  
nez, Maria Luisak gizarte laguntza ikasi zuen  
eta Mertxek magisteritza. Teresak, berriz,  
urteak eman zituen euskarazko klaseak eman-  
ten, *Oñatibia'tar Yon Euskera Ikastetxea*-n, eta  
bertako idazkari lanetan.

Zaragozan lau anaiak elkarrekin ziren bitarte-  
an, musika festa eta ibilaldi handiak antolatzen  
zituzten. Beste zenbait euskaldunekin elkar-  
tuta, *Eusko Ikasleak* izeneko taldea sortu  
zuten, Estornestarren familiaren babesean.  
Batez ere txistu emanaldi eta kontzertuak  
eskainiz, inguruko eta Nafarroako Erribera  
alaitzen eta euskalduntzen saiatu ziren. Alde



*Eun dukat* antzerki taldekoak, lagunekin Gernikan

hartako jendea alaitu eta euskaldundu ez ezik,  
harritu ere egiten zuen euskal talde honek.

Karrera amaitu ondoren, 1934an, Oiartzuna  
itzuli zen Yon, eta bertan bizitu zen 1936an  
gerra piztu zen arte. Tarte horretan politikak  
ere erakarri zuen gure txistulari gaztea, eta  
Oiartzungo Batzokiko bultzatzaile eta dina-  
mizatzaile izan zen urte apur horietan.

Epe labur horretan antzerki talde bat eratu  
zuen herrian, eta gero hain ospetsu egin zen  
*Eun dukat* obra dantzatu zuten herriz herri,  
batetik bestera. *Eun dukat* Manuel Lekuonak  
bere anaia Martinekin batera idatziriko an-  
tzezlana. Yon Oñatibiaren antzerki taldeak  
plazaratu zuen argitaratu zen urte berean,  
1935ean. *Eun dukat* izeneko obra berritu eta  
ezagutarazi zuten bazter guztietan. Batez ere,  
1935ean Donostian I. saria irabazi ondoren,  
arrakasta handia izan zuen Oiartzungo an-  
tzerki talde honek. Yon Oñatibia zen taldeko  
zuzendari eta buru.



Oiartzungo gazte koadrila, *Euskal Jaia* ospatzen.  
Yon eta Joxe anaia, txistua eskuan

## Paris aldean

1936. urtean, gerrako lehenengo tiro hotsak entzun orduko, oiartuar gudaria ihes egin beharrean aurkitu zen, beste euskaldun asko eta askoren antzera. Yonek Hendaiara jo zuen aurrera, bere anaia Joxerekin, eta han egin zituzten erbesteko lehen egun eta hilabeteak.

Hendaiatik Parisera jo zuen, eta han ere txistulari lanetan jarraitu zuen. Parisen beste euskaltzale batzuekin (Julian Ajuriagerra, Paul Legarralde, Enrike Jorda, Jose Etxabe, Jesus Luisa Esnaola, Gabriel Olaizola...) elkartuta, Euskal Abesbatza eta Koreografia talde bat sortzea erabaki zuten. Horrela,



Guetharyn, 1937ko abuztuan

1937ko abenduaren 18an, Pleyel aretoan *Eresoinka* taldea aurkeztu zuten.

Ikuskizun honekin 3 bat urtez aritu ziren, eta arrakasta izugarria izan zuen Europa osoan zehar. *Eresoinkako* lehen txistularia zen Yon. Emankizun luzea eta zabala zen. Programak bi atal nagusi izaten zituen, eta denetik ikus zitekeen:

- I-Atala: – Txistulariak (Mendiko soñua, Ezpata dantza...).
- Dantza taldeak (Ikurrin dantza, Zortzikoa, Makildantza...).



Eresoinka-ko txistulari taldea. Yon, ezkerretik lehenengoa




Château du Belloy. Parisetik hurbil, Eresoinka-ren egoitza

- Tokian tokiko orkestra sinfonikoaren emanaldia (Brusela, Paris, Haarlem...).
- Euskal abesbatza (Agur jaunak, Ama begira zazu, Itsasoan, Loa loa...).
- Dantza taldeak (Satan dantza, Godalet dantza, Sagar dantza...).

II-Atala: – Kaxarranka.

- Euskal abesbatza (Adio ene mai-tea, Aldapeko, Lore...).
- Tokian tokiko orkestra sinfonikoaren emanaldia.
- Akerlanda izeneko ikuskizuna.



Egunkarietan argitaratutako lezioetako bat



## Ameriketarantz

Bordeletik 1941. urtean irten zen Ameriketarako asmotan, La Salle izeneko itsasontzian. Baina ez garai hartako beste gazte askoren antzera dirua egin eta itzultzeko asmoz, halaberrez baizik. Yon euskal ameslari horietakoa zen. Bere herrian den-dena utzi, eta herrialde berrien bila zihoan, baina beste erremediorik ez zuelako, ihesi. *Eresoinka*, momentuz behintzat, alde batera utzi eta bizitza berri baten bila.

Gerraren atzapar luze eta gaiztoak oso hurbietik sentitu zituen Euskal Herrian lehenik, eta gero Frantzian ere bai, eta ihesi egin beharra zeukan norabait. Yon mutil bizia zen, eta senak agindutakoa egin zuen. Bazekien etxean geldituz gero laster zela espainiar faxisten eskutan, eta azkar alde egin behar izan zuen.



*Eresoinka* ikuskizunaren esku programa. Holandako emanaldiak

Orduan ere euskaldun askok utzi behar izan zuen aberria atzerrira ihesi joateko. Han, Ameriketara, askatasunean etorkizuneko Euskal Herriaren alde lan egin ahal izango zuen itxaropenarekin joan zen Yon gaztea etxetik.

Tristeza izan zen Yonek bere Herri zahar maiteari egin zion azken agur isila, Bordeletik Ameriketara irten aurretik. Bi maitaleren moduan aritu ziren hizketan. Hona nola kontatzen duen Yonek berak une hori, *Neke ta poz* liburuan:

- Ba-oa, Yon! Noiz arte? Betiko?
- Ez, orrelakorik! Laster itzuliko nauk Ameriketatik!
- Ori bera ziotek irekin batera dijoazten gañerako euskaldun semeek ere, baña...
- Etzaut sekula aztuko! Nere jardun danak i gogoan autela egingo dizkiat!

Ameriketara jendea dirua egitera joan ohi zen, baina Yonek beste proiektu batzuk zituen buruan. Gainera, ordurako Joxe anaia ere Caracasen zuen, eta harengana jo behar zuen ahalik eta azkarren.

Egun luzeak izan ziren *La Salle* itsasontzian egin zituztenak, luzeak eta astunak, gogorrak oso. Eskerrak Yonen txistu hots bizi eta alaiak lagun izan zuten bidaiari zehar.

**Santo Domingon** egin zuen Yonek lehenengo geldialdia. Aurreneko dolarra ere kantari irabazi omen zuen bertan, baina Karibeko itsaso gozoak ez zuen gehiegi erakarri oiartzuar txistularia.

Handik **Venezuelara** joan zen, *San Rafael* izeneko itsasontzian. Caracasen zain zuen anaia Joxe, eta honek asko lagundu zion lehen egunetan. Ameriketarako bidaia ere Joxe anaiak ordaindu zion. Joxe albaite roa zen, eta Ministerioan egiten zuen lan, Nekazaritza eta Abeltzaintza Ministerioan.

Yon lege gizona zen izatez. Ikasketa horiek egin zituen Zaragozan, baina Yonek ez zuen lanbide horretarako batere zaletasunik. Ez zitzaion lanbide hori gustatzen, ez zituen gogoko lege kontuak. Oiartzuar gaztearen buruan beste musika klase baten doinuak zebiltzan bueltaka.

Paraiso auzoko *Etxola* izeneko baserrian jarri zen bizitzen beste zerbaite atera artean. Han ere ezin etsi, ordea, eta goiz batean Caracaseko Kontserbatorio Nagusira joan zen, bere musikarako zaletasun eta goseak nolabait asetzeko asmoz.

Zaragozako Unibertsitatean egindako zuzenbide ikasketak alde batera utzi, eta eresigile, konpositore ikasketak egiteko gogo bizia sartu zitzaion barruraino. Ordurako herrimin handia sentitzen hasia zen Yon gaztea, baina musikaren itsaso zabalean murgildu orduko, herriminaren oinazeak bat-batean aienatu zitzaizkion. Oiartzunen Don Paulorekin, Bergaran Pablo Barrenarekin eta Zaragozan ikasitakoak sakontzen eta berritzen hasteko aukera paregabea zuen Caracaseko Kontserbatorio Nagusian.

Musika ikasten eta irakasten aritu zen bertan. Urte batzuetan jardun zuen Caracasen musika, dantzak eta euskara aztertzen eta zabalitzen. Caracaseko Euskal Etxean ematen zituen euskarazko klaseak. Txistulari taldeak ere sortu zituen, eta dantzariak ere jairik jai erabili zituen bere zuzendaritzapean.

*Pizkunde* izeneko abesbatza ere sortu eta zuzendu zuen Caracasen garai hartan.

*Argia* izeneko euskal aldizkaria sortu eta zuzendu zuen, 1946an. Aurrena Caracasen eta ondoren New Yorken jarraitu zuen aldizkariarekin. Edukiz eta neurriz izugarria izan gabe, bi koloretan argitaratzen zen aldizkari hau.

Zortzi bat orrialdeko aldizkari honetan denetik aurki zitekeen, mota guztietako gaiak eta



*Argia* aldizkariaren azala. 13. alea

idazleak. Adibidez, 13.zenbakian, goitizenez sinatutako lan dezente irakur daitezke, baina idazle ezagun zenbaitek ere idazten zuen *Argia* aldizkarian. Esate baterako, Zaitegi´tar lokin, olerkari eta itzultzaile arrasatearraren «Gudarien egiñak» izeneko artikulua irakur daiteke 13.zenbaki honetan.

Gaiak, berriz, orotarikoak. Euzkadi´tik be-  
rriak, Sortaldeko txipristiñak, Eusko ikurriña,  
Osasun gayak, Kirolak (Ostikoketa izeneko  
atalean, Errenteriako Touring taldearen garai-  
penaren berri), Itsasoan, olerkiak...

**New York** izan zen Yonen hurrengo jomuga. Musikarekin aurrera jarraitu nahi zuen, eta horretarako Caracas atzean utzi, eta New Yorkera joateko erabakia hartu zuen. Yonek bere *Neke ta poz* liburuan, honela ematen digu erabakiaren berri: «Goi-deiaren indarrez, nere hemengo etorkizun lasai ta polita utzi, eta New York´eko uri gogor eta zail orretako bidea artzera noa, musika sakonki ikasteko irrikiz beterik».



New York College of Music eskolan lorturiko tituluaren agiria

82 Bank Street. Hauxe izan zen New Yorken Jonek ezagutu zuen lehenengo etxea. Alde zaharreko bazter bat. Lan bila batera eta bes-  
tera, batzuk probatu zituen: morroi, interpre-  
te, bankero baten laguntzaile...

Yonen helburua, ordea, Musika ikasketekin aurrera jarraitzea zen. Eta horretarako, hango Musika ikastetxerako sarrera lortu behar zuen. Hori zen oiartzuar musikazalearen nahi eta helmuga bakarra.

Musikaren mundua sakontzen jarraitu nahi zuen, eta horretarako derrigorrezkoa zuen New Yorkeko *New York College of Music* musi-  
ka ikastetxean sartzea. Aukera paregabe hura aprobetxatu beharra zeukan. Horretarako sosak behar, ordea. Sosak eta bertako sarrera gainditzeko suertea.

Noizbait iritsi zitzaion, bada, *New York College of Music* musika ikastetxera joateko eguna. Bertako Dr. Pollak-ek ezarritako froga guzti-  
-guztiak gainditu zituen, eta azkenean bete



Euzkadi ikuskizunaren programa



zen gure Yon Oñatibiaren ametsa. Bertan organoa ikasi zuen, konposizioa eta zuzendari ikasketak ere egin zituen.

New Yorkeko *La Milagrosa* elizako organista izan zen urte batzuetan. Lantxo honi esker, asko lasaitu eta orekatu zen Yonen egoera ekonomikoa. *Berlitz* ikastetxean gaztelaniako irakasle ere izan zen zenbait ikasturtetan.

*Euzkadi* izeneko ikuskizun paregabea ere jarri zuen martxan. Euskal bizimoduaren antzerki handi bat zen. Osagai askoz hornituriko ikuskizun ederra: abestiak, dantzak, txistua, txalalparta... koreografia ikusgarria zuen antzerki



Simon Arrieta, margolari bergararrak Yon Oñatibia lagunari eginiko erretratu

aparta, euskal musika eta euskal dantzez osaturikoa. Ikuskizun honekin goitik behera eta behetik gora, birritan eman zien jira Ameriketako Estatu Batuei.

Disko bat grabatu zuen, 1954an, *Folkways and songs* izeneko disketxearekin. Euskal abestiz eta txistu musikaz hornituriko diskoa. Jonek berak kantatutako abestiak eta berak jotako txistu piezak.

1956ko martxoaren 12an, garai hartan Eusko Jaurlaritzako delegatu buru zen Jesus de Galindez hil zuten. Politikari, abertzale eta idazle ospetsu eta argia. Geroztik, eta 1963 arte, Yon Oñatibia izan zen erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzako delegatu buru New Yorken, Agirre lehendakariaren aginduz.



Yonen diskoaren azala

*H*ogeita zazpi urteren burura, 1963an, itzuli zen berriro Euskal Herrira, Oiarzuna, eta Yonen afizioek, lanek eta egitekoek lehengo bidetik jarraitu zuten.

## **Euskara**

Euskararen bilakaeraz eta etorkizunaz kezkatuak, gure hizkuntzaren irakaskuntzaz arduratu zen. Lan horretan buru-belarri murgildu zen Ameriketatik itzuli zenean. Eta horretarako beharrezko ziren irakasleak prestatzen ere lan handia egin zuen Yon Oñatibiak. Euskara irakasteko lehen metodoak berari zor zaizkio.

Era guztietako klaseak, eskolak, eta bazter guztietan, eman zituen: Irratiz, egunkariaren bidez, *La voz de España* egu-



Yon txistularia, Hollywood-en ateratako argazkian

nerokoan, *Curso de euskera* izeneko lezioak urteetan argitaratu zituen, 1965ean hasita. Akademietan ikastaro trinkoak, Idaho-ko Boise-ko Unibertsitateak Oñatin antolatutako ikastaroetan, Reno-ko Unibertsitatean, Azpeitiko Loiolan irakasleentzat antolaturiko ikastaroetan...



Lanaren ondoren, ospakizunen garaia.  
Yon Oñatibia lagun artean



Yonen gurasoen urrezko ezteiak. Familia osoa. 1961ean

Irratiz euskara lantzeko metodologia sortu zuen. 1965ean argitaratu zuen *Euskera irrati bidez* izeneko obra. Bi liburu ziren eta arrakasta izugarria izan zuen. Oso urte gutxitan 10 edizio argitaratzeraino. Metodo hau, euskara batzearen aldeko ahalegin bat ere bada, obra honek bere 10. edizioan hartzen duen izenburua kontuan hartzen badugu: *Erriaren euskera batua*.

Hamargarren edizio honetan aldaketa handiak agertu zituen Yonek. Ikerketa lan izugarria aurrez egileak egin zuena. 60 herri eta bai-laratako datu bilketen laburpenak argitaratu zituen edizio honetan. Garai hartan leku bakoitzeko joerak, esamoldeak eta batez ere lexiko mailako berezitasunak. Lekuan lekuko zer-nola esaten zuen herriko jendeak. Hau da, euskalkien berri ere eman nahi du egileak, eta euskararen aniztasuna eta aberastasuna argi eta garbi azaldu gure hizkuntza ikastera zihozazten guztiei.

Euskara batzeko egiten ari zen ahalegin hartan, beste eginahal ttiki bat izan zen Yon Oñatibiak aldi hartan egin zuena. Egileak liburuaren hitzaurrean garbi azaltzen ditu bere intentzioak eta asmoak:

Además, estoy convencido de que con esta aportación me ajusto a los deseos de las dos Academias de la lengua: Euskaltzaindia y Euskerazaintza. La primera, Euskaltzaindia, después de su VIII Congreso de Vergara declaró: «Batasunerako bidean ari diren Erakunde eta Elkarte guztiekin premiazko harremanak indartzeko nahia aditzera ematen du». Y el segundo, Euskerazaintza en su manifiesto programático dice: «Euskalkiak euskeraren bizi oparoak bakarrak bateratuko dituen ezkerro, euskeraren bizigarriako daiteken lana ontzat artuko du Euskerazaintzak».

Liburu honetan Oñatibiak argi eta garbi azaltzen du euskara batuaren inguruko bere





Yon Oñatibiak amerikarrak euskalduntzen jarraitu zuen, Euskal Herrira itzuli eta gero ere




Euskera irrati bidez, Erriaren euskera batua, Iztegi berezia eta Jolas bidez. Yonen liburu didaktikoak

jarrera eta bere joera nabarmenenak ere azpimarratzen ditu liburuaren hitzaurrean. Adibidez H letraren erabileraren aurka dagoela azaltzen du, ondoren ederki arrazoituz bere postura: «No soy partidario de utilizar la H, porque, además de antipedagógica, es una letra clasista. Es decir, su dificultad nunca será dominada por el pueblo y éste se verá obligado constantemente a recurrir a los muy pocos que en cada localidad puedan estar impuestos en la materia».

Era berean, Y-ren erabileraren aldeko arrazoiak ere luze eta zabal agertzen ditu bere hitzaurre horretan.

Beharbada Yonen ahalegin hau ez zihoan Euskaltzaindiaren bide beretik, Euskerazaintzaren ildotik, baizik. Azkenean herriak Euskaltzaindiarena hobetsi badu ere, aipagarria da Yonek bere garaian alor honetan egin zuen lana. *Iztegi berezia* ere helburu honekin argitaratu zuen.

Pariseko Sorbonako unibertsitatearen Doktore tituluaren agiria



Euskal show ikuskizunaren esku programa



*Neke ta Poz.* Yonek bere Ameriketako ibileren berri ematen digu liburu honetan

Yon ohartua zen ordurako, letra odolarekin baino hobeto sartzen zela musikarekin. Musika errazago sartzen zela haurren bihotz-buruetan. Eta bazekien hortik bideratu behar zuela euskararen irakaskuntzarako pedagogia berria.

Horrela, haurrentzat beste metodologia berri bat sortu zuen. Ttikienek euskaraz ikas zezaten, *Jolas bidez* obra argitaratu zuen, haurrak abesti, erritmo eta dantzaren bidez gure hizkuntzaren jabe egin zitezzen. 50 ikasgaiz osaturiko metodoa.

Gure hizkuntza, ohiturak eta oro har gure kultura zabaltzeko ahaleginetan eten gabe jarraitu zuen. Ildo honetan, New Yorken sortu zuen *Euzkadi* ikuskizunaren haritik, *Euskal show* asmatu eta bideratu zuen.

*Neke ta poz* izeneko liburu mardula ere idatzi zuen Yon Oñatibiak. Egilea hil ostean argia ikusi zuen liburu honek, Yonek erbestean, Ameriketako bizitutako urteak kontatzen diz-



Bietan biekin, ekin eta ekin

kigu. Ameriketako joan-etorrien berri ematen digun nobela itxurako narrazio autobiografiko dotore eta atsegina. Santo Domingo, Venezuela, eta New Yorkeko bizipenez osatua. Yonek berak sortutako *Edili* izeneko argitaletxean argitaratu zuen liburua.

Pariseko Sorbonako Unibertsitateak Doktore izendatu zuen hil ostean (1983), «Análisis morfológico del euskera. Estructuras generales de la lengua» doktore tesiarengatik. Yonen tesiaren zuzendaria Bernard Pottier hizkuntzalari ospetsua izan zen. Gizon honi esker lortu zuen, ohikoa ez den hil osteko Doktore izendapena.

Bartzelonan *Lenguas vivientes* izeneko erakundeak izen berarekin argitaratzen zuen liburu sailean, Yonen *Curso de euskera* izeneko liburuxka argitaratu zuen.

Euskeratzaintzako euskaltzain oso izendatu zuten 1978an, eta Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1966ko azaroaren 25ean.

## Musika eta dantza

Musika eta dantza ere guzizkoak zituen Yon Oñatibiak, eta lan eskerga egin zuen beste bi alor hauetan ere, Ameriketatik bueltan itzuli zenetik.

Esate baterako, Oiartzungo *Lartaun* Abesbatza eta Koreografia Taldea sortu eta zuzendu zuen urteetan zehar. Tolosa, Torreveja, Bartzelona... Herri askotara heldu ziren *Lartaun* Abesbatzaren ahotsak. Eta bidean sari batzuk ere eskuratu zituen taldeak. Baina batez ere, herria jarri zuen kantari, Oiartzungo kantuzale guztiak kantari jarri zituen Yonek. Oraindik ere bizi da Oiartzungo *Lartaun* Abesbatza.

Musikaren alorrean Yonen produkzioa beneran oparoa izan zen. Konposizio ugari idatzi eta landu zituen. Era guztietako lanak sortu

eta harmonizatu zituen: polifonikoak, erlijiosoak, folklorikoak, txistu, piano eta organorako piezak; orkestrazikoak... Zer ez zuen egin Oñatibiak? Denetik:

- I. Txistu eresiak: Ehun eta bi pieza. Gehienak berak sortuak eta gutxi batzuk harmonizatu zituenak.
- II. Sortutako eresiak: hirurogeita sei konposizio.
- III. Orkestrarako: hamar pieza sortu zituen.
- IV. Piano eta organorako ereslanak: berrogeita hamalau lan harmonizatu zituen.
- V. Gitarrarako konposizioak: hogeita sei moldaketa.
- VI. Abesbatzarako harmonizazioak: ehun eta hogeita hamabost pieza, euskaraz eta erdaraz.
- VII. Eliz kantak: ehun konposizio harmonizatu zituen.
- VIII. Haur abestiak: hogeita zortzi pieza sortu zituen.



*Lartaun* Abesbatza zuzentzen



Yon Oñatibia, beste gauza askoren artean, txistularia zen



Guztira, beraz, 500 piezatik gora. Izugarria Yonek musika arloan utzi digun ondarea, ikaragarria harengandik jaso dugun altxorra.

Musikarekin jarraituz, *Antología de la música coral vasca* izeneko diskoak argitalpen sailari hasiera eman zion. Eta Usandizaga izeneko disketxea sortu eta zuzendu ere egin zuen.

Dantzaren alorrean ere aipatzekoa da Yonen ahalegina. Dantzazalea izaki, dantzaria ere bai, eta horrek dantza berriak sortzeko, asmatzeko irrika sortu zion gure oiartzuar polifazetikoari. Sortu zituenen artean hauek dira eza-gunenak, eta zenbait sari jasotakoak ere bai tartean: *Donibane*, *Herri dantza*, *Mirandaola* izeneko ikuskizuneko dantzak, *Arrantzaleena*, *Lakuntzako pertzaren dantza*...

*Donibane* dantzarekin I. saria irabazi zuen Bilbon, 1966an bertan antolatutako Dantza Berrien I. Lehiaketan.



*Donibane* dantzari lehen saria, Bilboko lehenengo lehiaketan. 1966

## Azken notak

Errepideko istripu batek, 1979ko ekainaren 30ean, gure artetik eraman zuenean, ilusio eta proiektu berriz gainezka zituen Yonek burua eta bihotza. Haren laneko gaitasunak ez zuen mugarik. Beti zerbait berria egiteko, sortzeko, asmatzeko prest. Haren eginahalean ez zegoen etenik, ez atsedunik.

Esku artean zituen proiektuen artean, hauek dira garrantzitsuenak:

Batetik, *Saski-Naski* izeneko hilabetekariaren argitalpena oso aurreratua zeukan, eta hil ostean gauzatu zen.

Bestetik, Euskararen irakaskuntzarekin aurrera jarraitzeko asmotan, akademia bat martxan jartzeko proiektua ere aurreratua zeukan. Proiektu hau ere Oñatibia hil ostean gauzatu zen. Eta *Oñatibia'tar Yon*



*Aunitz urtez* mutil dantzarako, Oñatibia sorturiko konposizio saritua




Hil osteko omenaldiak eta esker oneko ospakizunak asko izan ziren

*Eusker*a Ikastetxea izenarekin funtzionatu zuen.

Telebistarako programa bat ere prestatua zeukan, Programa pilotua bukatua eta esperimendatua. Euskarazko klaseak ziren, telebistaz euskara ikasi nahi zutenentzat.

Oiartzungo Udalak esker onez Herriko Seme Kutun izendatu zuen eta herriko etorbide batek ere *Yon Oñatibia* izena darama geroztik.



Lan handia, izugarria, Yon Oñatiari Herriaren alde egin zuena. Alor asko izan ziren landu zituenak: euskara, dantza, musika... Eskertzekoa, oro har, gure Kultura eta gure Herriaren alde egindako ahalegin isila eta apala.

Oiartzungo herriak ere eskaini zion berea



Iñaki Irigoien, Oiartzungo alkatea, *Yon Oñatibia* etorbidea-ren plaka desestaltzen

Batez ere horrelakoxea izan zelako egin zuen lana, isila eta apala. Gizona bera izaki horrelakoa.

Hil ostean ere arrakasta handia izan zuen Yon Oñatibiaren lanak. Ikusi besterik ez dago jaso zituen omenaldi, aitortpen eta esker oneko ekintzak.

Bizitza osoa eskaini zuela esan dezakegu, inolako zalantzarik gabe, Euskal Kulturaren alde, eta bereziki, Oiartzungo herriaren alde. Heriotza bera ere, oiartzuar pilotariak txistuz animatzera zihoala etorri zitzaion errepidera.

Langile nekagaitza eta ikertzaile zorrotza eta zehatza landu zituen alor guztietan. Euskaltzale eta musikazale suharra, eta hainbat arlotan maisu handi. Sormen handiko gizona, eta lanerako gaitasun aparta zuen oiartzuar euskaldun ameslaria. Askorentzat eredu izan zena eta oraindik ere eredu izaten jarraitzen duena.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

• *Yon Oñatibiaren familia*

• *Jose Maria Erauskin*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1876-2 (Lan osoarena)  
84-457-1879-7

L.G.: VI-564/02

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística